

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

|   |   |              |     |
|---|---|--------------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA                                  | HORMIGOIEN PRESTAKETA ETA PROIEKZIOA  | Iraupena     | 60  |
|   |   | Baldintzatua |     |
| Kodea   | UF0778  |              |     |
| Lanbide-arloa                                       | ERAUZKETA-INDUSTRIAK  |              |     |
| Lanbide-eremua                                      | Meataritza  |              |     |
| Profesionaltasun-ziurtagiria                        | Lehergai bidezko lurpeko indusketak   | Maila        | 2   |
| Prestakuntza-modulua                                | Hormigoi-proiektzioa  | Iraupena     | 120 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa (zeharkakoa) | Iraupena     | 60  |

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0420\_2 HORMIGOI-PROIEKZIOAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Proiektzio-ekipamendua bere lan-posizioan prestatzeko eta gero kentzeko beharrezkoak diren eragiketak gauzatzea, proiektzioa eraginkortasunez eta segurtasunez egikaritzeko behar diren egiaztapenak eginez.

E1.1 Proiektzio-ekipamenduak eta horien osagaiak identifikatzea.

E1.2 Ekipamenduen funtzionamendua azaltzea, beren dokumentazio teknikoaren arabera.

E1.3 Ekipamendua lekuz aldatzeko eta kokatzeko baldintzak definitzea, laneko argibideen eta funtzionamendurako eskuliburuaren arabera.

E1.4 Ur- eta energia-sareen eta instalazioaren konexioen erabilgarritasuna ezagutzea.

E1.5 Ekipamendu elektrikoaren isolamendu elektrikoaren kontrolaren irakurketari eta egiaztapenari buruzko arauak aipatzea.

E1.6 Makinaren elementu mugikorak jartzeko eta finkatzeko eragiketak deskribatzea, elementu horiek fabrikatzailearen eskuliburuaren arabera lekuz aldatzeko.

E1.7 Proiektzio-makina garbitzeko eta lehen mailako mantentze-lanak egiteko eragiketak deskribatzea, fabrikatzailearen eskuliburuaren arabera.

A2: Hormigoiak proiektatzea, produktu bakoitzaren espezifikazioen arabera, proiektzioa eraginkorra eta akabera egokia izan daitezkeen.

E12.1 Estali beharreko gainazala erregularizatuta, saneatuta eta drainatuta ote dagoen jakitea, proiektzioa behar bezala aplikatzeko.

E12.2 Sare metalikoa baoaren ertzetan jartzeko beharrezkoak diren eragiketak deskribatzea, ezarritako euspen-elementuen eta teilakatzeen arabera.

E12.3 Hormigoi-proiektzioaren arrisku espezifikoenak prebenitzeko neurriak deskribatzea: hautsa sortzea eta produktu kimikoekiko kontaktuak.

E12.4 Egoera espezifikoko batean:

- Osagaiak ezarritako proportzioetan nahastea.
- Fabrikatzailearen funtzionamendurako eskuliburuaren arabera lan egitea proiektzio-ekipamenduarekin.
- Hormigoi-proiektzioa bide lehorraren eta hezearen bitartez egitea, modu uniformearen eta ezarritako lodierarekin.
- Hormigoi-proiektzioko makina garbitzea eta lehen mailako mantentze-eragiketak egitea.

##### Edukiak:

##### 1. Hormigoiak eta morteroak: ezaugarriak, ekipamenduak, osagarriak eta arriskuak.

- Proiektzioa daitezkeen hormigoiaren ezaugarriak. Hormigoiaren eta nahasketaren osagaiak: zementuak, agregatuak, zuntzak eta gehigarriak.
- Hormigoiaren proiektzio-sistemak: bide lehorra eta bide hezea. Ezarritako lan-prozedurak.
- Sare metalikoa, jartze-prozedurak.
- Erabilitako ekipamenduak, osagarriak eta erremintak:
  - Proiektzio-makina, konpresorea eta ponpa.
  - Ekipamenduen lehen mailako mantentze-lanak egitea.
  - Ekipamenduen funtzionamendurako eskuliburuak.
- Estali beharreko gainazalaren baldintzak.
- Hormigoi bidezko proiektzioaren arrisku espezifikokoak: hautsa sortzea eta produktu kimikoekiko kontaktuak.

##### 2. Hormigoi-proiektzioko prozedura.

- Osagaien nahasketak ezarritako proportzioetan.

- Proiekzio-ekipamendua fabrikatzailearen funtzionamendurako eskuliburuaren arabera manipulatzea.
- Hormigoi-proiekzioa bide lehorraren eta hezearen bitartez egitea, modu uniformean eta ezarritako lodierarekin.
- Hormigoi-proiekzioko makinaren garbiketa eta lehen mailako mantentze-eragiketak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0770 Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko lurpeko indusketak